

2009ko azaroan % 4 bidaiari gehiago sartu da

Azaroan igarotako gau kopurua % 3 gehitu da

Eustaten datuen arabera, 2009ko azaroan 154.757 bidaiarik hartu dute ostatu Euskal AEko hoteletan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino 6.500 gehiagok; horrenbestez, % 4ko gehikuntza izan da. Gehikuntza hori hiru lurraldeetan eman da: aurreko urteko azaroko datuekin alderatuta, Araban % 13 bidaiari gehiago sartu da, Gipuzkoan % 4 gehiago, eta Bizkaian % 2 gehiago.

Etorritako Estatuko bidaiarien kopuruak aldaketa positiboa izan du, % 4koa, eta atzeritik etorritakoenak % 5 gehitu da, aurreko urteko hilabete beraren aldean. Estatutik etorritako bidaiari kopuruak orokorrean etorritako guztien kopuruaren antzeko ehunekoa izan du: Arabara % 13 gehiago etorri dira Estatutik, Gipuzkoara % 4 gehiago eta Bizkaira % 2 gehiago. Halaber, hiru lurraldeetan gehitu da atzeritik etorritako bidaiarien kopurua: Araban % 12 gehitu da, Bizkaian % 5 eta Gipuzkoan % 2.

Estatutik etorritako bidaiarien artean, besteak beste, Katalunia, Asturias, Errioxa eta Madrildik etorri da bidaiari gehien; bestalde, batez ere Andaluzia, Gaztela-Mantxa eta Extremaduratik gutxiago etorri da. Atzerriko bidaiarien artean, bereziki Frantzia, Erresuma Batu, Portugal, Alemania eta Finlandiatik etorritako bidaiari kopurua gehitu egin da baina, besteak beste, Italiatik, Europako gainerako herrialdeetatik eta Iberoamerikatik bidaiari gutxiago etorri da.

2009ko azaroan 281.894 gau igaro dituzte bidaiariek; hau da, aurreko urteko azaroaren aldean, igaro dituzten gauen kopurua % 3 gehitu da, gutxi gorabehera 8.000 gau gehiago igaro baitituzte. Araban eta Gipuzkoan urte batetik besterako gau kopuruaren bilakaera positiboa izan da, % 8 eta % 5 gehitu da hurrenez hurren kopuru hori. Baina Bizkaian ez da aldaketarik izan (% 0).

Bidaiarien batez besteko egonaldia murriztu egin da, iazko azaroko 1,85 egunetik aurtengo azaroko 1,82 egunera laburtu da egonaldia Euskal AE osoa aintzat hartuta. Araban % 5 jaitsi da eta Bizkaian % 2; baina Gipuzkoan % 1 gehitu da. Beste modu batera esanda, 2009ko azaroan Araban batez beste igarotako egun kopurua 1,72 egun izan da, Bizkaian 1,76 egun eta Gipuzkoan 1,95 egun.

Euskal AE osoan, plazen okupazio maila % 2 murriztu da: aurreko urteko azaroan % 38,39koa izan zen eta aurtengo azaroan % 37,72koa. Araban % 1 jaitsi da okupazioa, % 34,84an geratuz eta Bizkaian % 4 jaitsi da, % 38,05ean geratuz. Gipuzkoan izan du plazen okupazio mailarik handiena, % 38,51koa, % 1 gehitu delako. Logelen okupazio maila ere jaitsi da Euskal AE osoan, % 4 hain zuzen ere.

NEKAZARITZA-TURISMOA

gutxitu egin dira bidaiarien sarrerak (-% 9) eta gualdiak (-% 5)

Joan den azaroan 6.935 bidaiarik hartu dute ostatu Euskal AEko nekazaritza-turismoko establezimenduetan, aurreko urteko hilabete berean baino % 9 gutxiagok. Baina hiru lurraldeek ez dute portaera homogeneoa eduki. Araban % 3 bidaiari gehiago sartu da, Gipuzkoan % 7 gutxiago eta Bizkaian % 20 gutxiago. Estatutik etorritako bidaiarien kopurua % 9 murriztu da aurreko urteko azaroko datuekin alderatuta. Eta atzeritarren kopurua ere negatiboa izan da: % 19 gutxitu da kopuru hori Euskal AE osoan. Araban % 1 gehitu da Estatutik etorritakoen kopurua eta % 107 atzeritik etorritakoena, hala ere, pisu erlatiboa txikia izan da. Bizkaian % 18 gutxitu da Estatuko bidaiarien kopurua eta atzerriko bidaiariena % 45 gutxitu da. Gipuzkoan % 7 gutxitu da Estatutik etorritako bidaiarien kopurua, eta atzeritarrena % 11 gutxitu da.

Azaroan 17.037 gau igaro dituzte bidaiariek Euskal AEko nekazaritza-turismoetan, aurreko urteko hilabete berean baino 900 inguru gutxiago (-% 5). Urtetik urterako hazkunde tasak positiboak izan dira Araban (% 9) baina Bizkaian (-% 9) eta Gipuzkoan negatiboak izan dira (-% 7).

Bidaiarien batez besteko egonaldia luzatu egin da Euskal AE osoan, 2008ko azaroko batezbestekoaren aldean. Aurreko urtean 2,34 egun ziren eta aurtengo azaroan 2,46 izan dira. Araban eta Bizkaian batez besteko egonaldia gehitu egin da eta egonaldiak ez du aldaketa handirik izan Gipuzkoan.

Plazen okupazio maila % 15,26koa izan da, hau da, aurreko urteko datuen aldean % 11 txikiagoa. Hiru lurraldeetan eman dira gutxitzeak: Araban % 5 jaitsi da, Gipuzkoan % 12 eta Bizkaian % 14. Logelen okupazio mailak % 15 egin du behera Euskal AEn.

1. Taula: Hileko emaitzak

	EUSKAL AE					ARABA					BIZKAIA					GIPUZKOA				
	11 2009	%	11 2008	%	Δ %	11 2009	%	11 2008	%	Δ %	11 2009	%	11 2008	%	Δ %	11 2009	%	11 2008	%	Δ %
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK																				
GAUALDIAK	281.894	100	273.596	100	3	40.578	100	37.668	100	8	132.996	100	132.407	100	0	108.320	100	103.521	100	5
Estatukoak	206.744	73	199.125	73	4	31.276	77	29.386	78	6	95.356	72	94.550	71	1	80.112	74	75.189	73	7
Atzerrikoak	75.150	27	74.471	27	1	9.302	23	8.282	22	12	37.640	28	37.857	29	-1	28.208	26	28.332	27	0
Hiriburua	171.783	61	170.392	62	1	26.950	66	28.671	76	-6	88.121	66	88.015	66	0	56.712	52	53.706	52	6
Litoral	27.299	10	29.784	11	-8	-	-	-	-	-	7.379	6	8.548	6	-14	19.920	18	21.236	21	-6
Barnealdea	82.812	29	73.420	27	13	13.628	34	8.997	24	51	37.496	28	35.844	27	5	31.688	29	28.579	28	11
BIDAIA-RIEN SARRERAK	154.757	100	148.209	100	4	23.574	100	20.823	100	13	75.625	100	73.839	100	2	55.558	100	53.547	100	4
Estatukoak	117.708	76	112.877	76	4	18.938	80	16.701	80	13	57.548	76	56.630	77	2	41.222	74	39.546	74	4
Atzerrikoak	37.049	24	35.332	24	5	4.636	20	4.122	20	12	18.077	24	17.209	23	5	14.336	26	14.001	26	2
Hiriburua	96.683	62	93.640	63	3	14.285	61	15.183	73	-6	50.110	66	47.648	65	5	32.288	58	30.809	58	5
Litoral	13.624	9	13.755	9	-1	-	-	-	-	-	4.204	6	4.849	7	-13	9.420	17	8.906	17	6
Barnealdea	44.450	29	40.814	28	9	9.289	39	5.640	27	65	21.311	28	21.342	29	0	13.850	25	13.832	26	0
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,82		1,85		-2	1,72		1,81		-5	1,76		1,79		-2	1,95		1,93		1
BETETZE-MAILA PLAZAKA	37,72		38,39		-2	34,84		35,16		-1	38,05		39,50		-4	38,51		38,30		1
Hiriburua	41,86		43,15		-3	35,76		41,44		-14	43,82		44,01		0	42,36		42,74		-1
Litoral	33,22		36,92		-10	-		-		-	22,24		28,02		-21	40,66		42,34		-4
Barnealdea	32,50		30,96		5	33,16		23,71		40	32,52		34,23		-5	32,20		30,25		6
BETETZE-MAILA GELAKA	49,39		51,33		-4	45,10		47,70		-5	52,23		54,24		-4	47,58		49,03		-3
Hiriburua	56,13		58,84		-5	48,85		57,63		-15	60,93		61,87		-2	53,01		54,50		-3
Litoral	39,38		44,51		-12	-		-		-	29,27		36,33		-19	45,97		49,20		-7
Barnealdea	41,51		40,69		2	36,88		28,18		31	43,10		44,50		-3	41,36		41,26		0
NEKAZALTURISMOA																				
GAUALDIAK	17.037	100	17.928	100	-5	3.370	100	3.093	100	9	5.326	100	5.875	100	-9	8.341	100	8.960	100	-7
Estatukoak	14.705	86	15.060	84	-2	3.153	94	2.789	90	13	4.000	75	4.906	84	-18	7.552	91	7.365	82	3
Atzerrikoak	2.332	14	2.868	16	-19	217	6	304	10	-29	1.326	25	969	16	37	789	9	1.595	18	-51
BIDAIA-RIEN SARRERAK	6.935	100	7.660	100	-9	1.616	100	1.570	100	3	1.960	100	2.460	100	-20	3.359	100	3.630	100	-7
Estatukoak	6.595	95	7.240	95	-9	1.554	96	1.540	98	1	1.849	94	2.258	92	-18	3.192	95	3.442	95	-7
Atzerrikoak	340	5	420	5	-19	62	4	30	2	107	111	6	202	8	-45	167	5	188	5	-11
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,46		2,34		5	2,09		1,97		6	2,72		2,39		14	2,48		2,47		0
BETETZE-MAILA PLAZAKA	15,26		17,20		-11	14,96		15,76		-5	14,49		16,80		-14	15,92		18,05		-12
BETETZE-MAILA GELAKA	17,33		20,42		-15	16,52		19,56		-16	16,82		19,83		-15	18,05		21,20		-15

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp